

Datorren urtean, gehiago!

Eguraldiak bat egin zuen Sagardo Egunarekin. Portatu egin zen eta, horri esker, jendez lepo izan zen Dema Plaza ingurua. Iragarrita zeuden arren, Asturias aldeko sagardoza-leek kale egin zuten eta antolatzaileak izan ziren Sagardo Egunari hasiera eman ziotenak. Hala ere, festa biribila izan zen. Giro onaren lekuko dira honako argazki hauek.



AZKEN URTEOTAN BAINO JENDE GEHIXEAGO BILDU ZEN NOAUA!KO BAZKIDEON ARGAZKIRAKO.



TXALAPARTA ETA IRRINTZIRIK GABE EZIN SAGARDO EGUNARI HASIERA EMAN.



SAGARDO EGUNEAN LAGUN ASKO BILTZEN DIRA. AURRETIK ETA ATZETIK, JENDEA SAGARDO ESKEAN.



EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRATZEA ESKATZEKO DEIALDIA EZ ZEN OHARKABEAN PASA.



EGUERDIRAKO, DEMA PLAZA GAINEZKA ZEGOEN (IRUDIA, FRONTOIKO TAULA GAI-NETIK ATERATAKOA).




ARRATSALDEAN, DANTZA PIKO, PATXI ETA KONPAINIAREN EMANALDIAREKIN BAT EGIN ZUTEN SAGARDOZALE ASKOK.



ASTURIASKO LAGUNEK KALE EGIN ZUTEN ETA ANTOLATZAILEAK BERAIEK IZAN ZIREN JAIARI HASIERA EMAN ZIDTENAK.



BOTATZAILE ASKO JO ETA SU ARITU ZIREN LANEAN ETA, HALA ERE, DENEN EGBARRIA ASETZEKO NAHIKOA KOMERI!



LEHIAKETAN, ARANTXA UNANUE IZAN ZEN GARAILE, URKO MANTEROLA ETA IKER MUGURUZAREN AURRETIK.